

57E/2025 EBAZPENA, irailaren 30koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ebazten baita Hedabideetan 2025ean euskararen erabilera sustatzeko laguntzak izeneko deialdiaren lehenengo ordainketa.

ERREFERENTZIA: Espediente kodea: 0011-1406-2025-000000	
UNITE KUEATZALEA:	Memoria eta Bizikidetz, Kanpo Ekintza eta Euskarako Departamentua Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutua Euskararen Plangintzaren eta Sustapenaren Zerbitzua Euskara sustatzeko atala
Tel.:	848 423224
Helbidea:	C/ Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa:	sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA	
Espediente-mota:	Hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko 2025eko laguntzen deialdia

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariak, maiatzaren 7an emandako 51E/2025 Foru Aginduren bidez, onetsi ziren Hedabideetan 2025ean euskararen erabilera sustatzeko laguntzak izeneko deialdia eta haren oinarriak.

Ondoren, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 6an emandako 37E/2025 Ebazpenaren bidez dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Deialdia arautzen zuen maiatzaren 7ko 51E/2025 Foru Aginduren oinarrietan ezartzen denez, dirulaguntza bi epetan ordaindu ahalko da. Gainera, abuztuaren 6ko 37E/2025 Ebazpenean ezarri zen lehenengo ordainketa justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea, borondatezkoa eta dirulaguntzaren % 50era artekoa, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 15 egun naturaleko epean aurkeztuko zela.

Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatu du diruz lagundutako jarduerak bete direla, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla, bai eta aurkeztutako agiriak baliagarriak direla ere.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena eman du behar den dokumentazioa eta gastuen frogagiriak aurkeztu dituzten 7 entitateei lehen ordainketa egiteko.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak ordaintzea:



Esp. zenbakia	IFK	Izena	Aurrekontu parida	Zenbatekoa
0011-1406-2025-000011	G31595473	FUNDACION TTIPI-TTAPA	B30002-B3200-4709-334100	16.346,49
0011-1406-2025-000012	G31595473	FUNDACION TTIPI-TTAPA	B30002-B3200-4709-334100	97.239,52
0011-1406-2025-000014	B31595721	ARALAR IRRATIA SL	B30002-B3200-4709-334100	6.300,00
0011-1406-2025-000033	E31696883	GARCIA BUENO-LABIANO MOSO	B30002-B3200-4709-334100	9.164,95
0011-1406-2025-000034	B95483137	KAEMONE EUROPE SOCIEDAD LIMITADA	B30002-B3200-4709-334100	7.619,17
0011-1406-2025-000039	A31455082	ZEROA MULTIMEDIA, S.A.	B30002-B3200-4709-334100	28.006,40
0011-1406-2025-000040	G31267008	ASOCIACION CULTURAL XORROXIN ELKARTEA	B30002-B3200-4709-334100	40.729,22

2.Ebazpen hau jakinaraztea goiko zerendako eskatzaile bakoitzari.

3.Ebazpen hau igortzea ondorengoei: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu hartzailatza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideako Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

4.Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean.

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Javier Arakama Urriaga

